

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 12/2022 Zerga premiazko araugintzako dekretua, abenduaren 27koa Onespena ematea aldatzeari Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren Foru Arauaren testu bategina, irailaren 29ko 4/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honen xedea da irailaren 29ko 4/2021 Araugintzako Foru Dekretuak onetsitako Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen Foru Arauaren testu bateginean jasotako sortzapenaren unean lurraren balioari aplikatu beharreko gehieneko koefizienteen taula aldatzea.

Testu bategin horren 4. artikuluan 4. apartatuaren arabera, sortzapen unean lurra duen balioari aplikatu beharreko koefizientea udal bakoitzak onetsitakoetatik balio gehikuntzaren sortzapen aldiaren arabera dagokiona izango da, baina ezin izango ditu apartatu horretako koefiziente taulan jasotako mugak gainditu.

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren figura erabiltzea justifikatuta dago aipatutako koefiziente taula ahalik eta lasterren aldatzeko premia dagoelako; izan ere, koefiziente horiek araubide erkideko lurraldean aldatu direnez 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, egokitzat jo da neurri bera lehenbailehen hartzea, Arabako toki erakundeek ez dezaten izan gainerakoek baino finantza autonomia txikiagoa.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako araudi inpaktuaren txosten laburtua aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra 8. artikuluan eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea irailaren 29ko 4/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bategina

Irailaren 29ko 4/2021 Araugintzako Foru Dekretuak onetsitako Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bateginaren 4. artikuluan 4. apartatuan jasotako gehieneko koefizienteen taularen ordez, taula hau jarriko da:

SORTZAPEN ALDIA	KOEFIZIENTEA
Urtebetetik behera	0,15
Urtebete	0,15
2 urte	0,14
3 urte	0,15
4 urte	0,17
5 urte.	0,18
6 urte	0,19
7 urte	0,18
8 urte	0,15
9 urte	0,12

SORTZAPEN ALDIA	KOEFIZIENTEA
10 urte	0,10
11 urte	0,09
12 urte	0,09
13 urte	0,09
14 urte	0,09
15 urte	0,10
16 urte	0,13
17 urte	0,17
18 urte	0,23
19 urte	0,29
20 urte edo gehiago	0,45

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honen artikuluko bakarrean onartutako taula berria 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera sortutako zergapeko egitateei aplikatuko zaie; hala ere, dago-kion udalak bere zerga ordenantza aipatutako artikuluko bakarrean xedatutakora egokitzea onetsi ondoren, Zerga Administrazioak dagozkion erregularizazioak egin beharko ditu.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA. Zerga ordenantzak moldatzeko epealdia

Toki erakundeek 2023ko ekainaren 30era arteko epealdia edukiko dute zerga ordenantzetan behar diren aldaketak egiteko, araudia zerga premiazko araugintzako dekretu honetan ezarri-takora moldatzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, xeda-pen gehigarri bakarrean ezarritako ondorioekin.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Batzar Nagusietara bidaliko da, indarrean dagoen arautegian ezarritakoarekin bat etorri baliozkotu edo errebokatu dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 27a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA